

IKASGAIAREN IZENA: FISIKA KIMIKA

DEPARTAMENTUA	MINTEGIA: FISIKA-KIMIKA
ZERTARAKO	Fisika eta Kimika zientzien gai desberdinak lantzen dira. Lehenengo partean, 2. DBHn emandako fisikako sarrera abiapuntutzat hartuta, objektuen mugimenduak baldintzatzen dituzten ekuazioak aztertzen dira. Bigarren partean ordea, 3. DBHko kimikako gaiak sakondu egiten dira.
ZER IKASIKO DUZU	Fisikan: gorputzen higidura motak, hauengan eragina dituzten indarrak eta sortzen diren energia aldaketak ikasten dira. Azkenik fluidoetan ematen diren berezitasunak aztertzen dira. Kimika: aurreko urteko eredu atomikoak eta hauen arteko erreakzioak sakondu ondoren, formulazio inorganikoa erreparasatu eta osatzen da.
METODOLOGIA	Gaiaren sarrera egin ondoren, gaiaren azalpena egingo da; gaiaren sarreran aipatu diren fenomenoak ulertzeko kontzeptu berrien ikasketa beharrezkoa dela ikasleari ikustaraziz. Gaiarekin lotuta dauden ariketak eta problemak egingo dira zailtasunaren arabera mailakatuak. Hasieran emandako informazioaren aplikazio zuzenekoak izango dira eta ondoren, kontzeptu guztiak nahastuta dituen problemak ebatziko dira. Horiek ebazteko erabili dituzten estrategia desberdinak eztabaidatuko dira, emaitza numerikoa garrantzitsuena ez dela azpimarratuz, baina bai logikotasuna eta erabilitako arrazonamendua.
EBALUAZIOA	Ebaluazio bakoitzean gutxienez kontrol bat eta azterketa bat egingo dute. Klasean eta etxean egindako ariketak eta ikaslearen irakasgaiarekiko eta lanerako jarrerak (begirunea, parte hartzea, lanean aritzea...) notan balioa izango dute.
OHARRAK	